

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Demokraziaz

Badirudi Faroe uharteetan apirilaren 25ean egin behar zen erreferenduma atzeratu egingo dela. Erreferenduma Faroe uharteei autodeterminazio eskubidea formalki aitortuko dien konstituzio berri bat onartu edo ez onartzeko deituta zegoen. Jakin dudanaren arabera, apirilean beharrean 2018ko udazkenean egingo da erreferenduma, eta, aurretik, ekain partean ziurrenik, Faroeetako Parlamentura eramango da konstituzio proposamena legebiltzarraren babesa jaso dezan. Prozedura atzeratu da beraz, baina egitasmoak aurrera jarraitzen du. Eta bide horretan guztian Danimarkak ez du arazo bat bera ere jarri.

Europako estaturik gabeko herriak aztertu eta multzoka sailkatzen saiatzen garenean, ez da batere lan erraza izaten, prozesu bakoitza bakarra delako, eta, anglofonoek ederki dioten bezala, «oin guztien neurriko zapatarik» ez delako existitzen. Normalean, prozesuaren erritmoa eta berezik zer fasetan dagoen hartzen dugu kontuan nazio bat talde batean edo bestean kokatzeko. Horrela, duela gutxira bitarte, Eskozia zen gure radarra-
ren aurrealdean, azken hila-
bete luzeotan Katalunia izan
dugun bezala. Egia da tes-
tuinguru politikoa faktore
garrantzitsua dela eta inde-
pendentzia laster lor dezake-
en herri horretan begirada
pausatzea normala dela. Bai-
na bada beste faktore ga-
rrantzitsu bat ere, eta horre-
tan ere guztiok ados egongo garela uste dut, faktore hori
gabe zaila baita estaturik gabeko herri diferenteen egoe-
ra eta momentua ulertzea. Hain zuzen ere, estatuek era-
bakitze eskubidearen inguruan duten jarreraz ari naiz.
Edo beste modu batean esanda: estatu bakoitzeko de-
mokrasiaren kalitatea edo maila. European marra hori-
zontal imaginario bat marraz genezake, eta ederki ikusi-
ko genituzke marra horren gainetik dauden estaturik
gabeko herrien eta azpitik dauden arteko diferen-
tziak. Ezberdintasunak estatuen politika eta jarrera de-
mokratikoetan daude, eta horrek nahitaez estaturik ga-
beko herrien egoera eta momentua baldintzatzen du.
Marra horretatik iparraldera kokatzen ditut Eskozia, Fa-

roe uharteak, Flandria, Irlandako iparraldea, Aland uhar-
tea, eta abar. Eta marra imaginario horretatik hegoalde-
ra, Korsika, Katalunia, Euskal Herria, eta abar.

Faroeetan 50.000 biztanle bizi dira. Norbaitek pentsa-
tzen al du Danimarkan beharrean frantses Estatuan edo
espainiar Estatuan egongo balira erreferenduma egingo
luketenik? Macronek Korsikari buruz duela gutxi egin-
dako adierazpenak nahiko argigarriak izan dira. Edo bes-
te modu batean begiratuta, norbaitek pentsatzen al du
Euskal Herria eta Katalunia espainiar Estatuaren mende
beharrean Danimarkan egongo balira oraindik orain in-
dependentzia erreferendum legal eta loteslerik egin ga-
be izango lirakekeenik? Europar Batasuna abiadura ez-
berdineko eredu baterantz doa, eta abiadura ezberdin
horiek ez dira bakarrik aldagai eta faktore ekonomikoen
araberakoak izango: gutxien-gutxienik demokrazia mai-
la ezberdinak eta estaturik gabeko herriekiko jarrera ez-
berdinak egon badaudela argi ikusten da.

Ez da berdina proiektu nazional bat aurrera eramatea
herritarren gehiengoaren borondatea denean kontuan

Europako estaturik gabeko herriak
multzotan sailkatzeko orduan, bada faktore
garrantzitsu bat: estatuek erabakitze-
es-
kubidearen inguruan duten jarrera

hartu behar duzun aldagai nagusi bakarra edota, gure
kasuan bezala, Estatuaren jarrera ez demokratikoa dene-
an gaingitu beharreko oztopo nagusia. Kataluniako pro-
zesua jarraituz gauza asko ikasten ari gara, bai indepen-
dentisten erabaki on eta txarretatik bai Estatuaren
erantzun eta jarreretatik. Europa nola dagoen ikusita, ez
dut uste azken urteotan estaturik gabeko nazioek bizita-
ko udaberria desagertu egingo denik. Subiranotasun
kuota handiagoak lortu eta atzera egin duen herririk, in-
dependentzia lortu eta ondoren baztertu duen herririk
ez dago munduan. Baina egia da ere berdinketa infini-
tuak nekatu eta maila batean desesperatu egiten gaitue-
la, zirt edo zart egiteko unea heltzea deseatzeko baita. •